

BALOREZKO PROPOSAMENA

Argi daukagu, gure ondasuna beste produktuengandik desberdintzeko gaitasuna izango duela. Alde batetik, gaur egungo produktuen artean berritzaileenetarikoa da, teknologia berrietan oinarritzen delako. Bestetik, jada aipatu dugun bezala gure produktua oso erabilgarria eta lagungarria izan daiteke. Esate baterako, materiala galduko ez duzulakoaren segurtasuna ematen du, hauek galtzerakoan aurkitzeko erreztasuna du... Horretarako, chip bakoitzak bere erabiltzaile edo kode propioa izango du, geroago gure web orrialdean aurkitu daitekeena. Gainera, iragazgaitza izateko diseinatu dugu, honek ere ohiko esparrutik kanpo uzten du gure produktua.